



8.ZIRKULARRA

2018-19 Denboraldia

KADETEEN OHOREZKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Kadeteen Ohore Mailako lehiaketa antolatu du:

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: Añorga K.K.E.; Antiguoko K.E.; Vasconia C.D.; Astigarragako Mundarro FKE; SANSE; Hernani C.D.; Ostadar S.K.T.; Euskalduna S.D.; Touring K.E.; Real Unión Club S.A.D.; Hondarribia F.E.; Beti Ona C.D.; Danena K.E.; Martutene K.E.; Kostkas K.E. eta Orioko F.T.

GRUPO II: Lagun Onak C.D.; Anaitasuna C.D.; Bergara K.E.; Real Sociedad S.A.D.; Lazkao K.E.; Elgoibar C.D.; Ordizia K.E.; Eibar S.A.D.; Aretxabaleta K.E. UDA; Ilintxa S.D.; Zarautz K.E.; Amaiak Bat K.E.; Urola K.E.; Tolosa C.F.; Zumaiako F.T. eta Beasain S.D.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Bi taldetan banaturik, puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi).

Maila honetako txapelduna erabakitzeko talde bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute, zelai neutralean eta partida bakarrera.

- Garailea goiko mailan dagoen beste talde baten mendeko edo filiala bada, final honen Galtzaileak Jubenil Euskal Mailarako iguera aukera zuzena jokatuko du filiala den klubaren multzoko bigarren sailkatuaren edo hurrengo onenaren kontra.
- Garaileak mendekotasun edo filialtasun erlaziorik ez badu goiko mailako talderen batekin, Jubenil Euskal Mailara zuzenean igoko da, eta talde bakoitzeko bigarren edo hurrengo hoberen sailkatuek, beti ere kategoria autonomikora igotzeko aukera dutenak, Igoera Fasean sartzeko partida bat jokatuko dute – 3x1 joko-sistema-Arabako eta Bizkaiko bigarrenen kontra, play off –aren garailea ere igoko delarik.

Kadeteen Lehen Mailara talde bakoitzeko azken 3 sailkatuak jaitsiko dira (3x2= 6)

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

80 minutu, bost aldaketa eta gehienez zazpi ordezko eserlekuan.

4) DIZIPLINA ARAUA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

5) XEDAPEN OROKORRAK

A) Erregional eta Jubenil mailekin bat etorriaz, “Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

a) 1. Kadeteen Mailako talde bat igota.

b) Ohorezko Kadete Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz, talde bakoitzean 14. postuan geratzen diren bi taldeen artean partida bikoitzera jokatu den kanporaketak erabakiko duena.

c) Eta horrela behin eta berriro.

B) Batzar orokorrean adostutakoaren arabera, Ohorezko Jubenil eta Kadete mailetan kategoria autonomikora igoera saria urria izanda eta menpeko taldeek duten eragin nabarmena kontuan izanda, “ez ohiko” irizpidea erabiliko da kategoria autonomikora igoera eta promozioa jokatu dutenak ebazteko. Zirkular honen 2. Puntuan “Lehiaketa sistema” azaltzen denaren arabera.

Donostia, 2018ko abuztua.
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe